

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



AZAGARIA (LUKIA) ETA DORTOKEA

Arrokeria, norberekeria eta nagusi izan gurea, besteak arbuiatzeko bidea da, besteak makalagoak dirala uste dau. Mozanbike'ko alegi onek orixe agertzen dau: Obea dala zurtasunaren indarra gorputzarena baiño.

Urteak eta urteak dira luki edo azagariak dortokeari izeka egiten eutsola eta zioa auxe zan: Dortokearen anakak oso laburrak zirala eta pizti ori ibilteko guztiz nagia zala.

—Zer nai dozu —erantzuten eban dortoka errukarriak, Jainkoak bakoitxa beretzat naikoa izateko lakoak egin gaitu!

—Atxakiak! Atxakiak baiño ez dira orreik, zeure burua zuritzeko atxakiak! —erantzuten eutson azagariak.

—Tira ba! Ikusi dagigun ori orrelan dan! —esan eban dotokeak minduta. Zu arro zagoz bizkorra zaralako. Gura dozu ikusi biotatik zein eltzen dan ariñago etxera?

—Bai —esan eban luki edo ezagariak— ikusi dagigun!

Tximiñoi batek entzun eutsen alkar-izketa ori eta bere burua eskiñi eutsen urteteko ezaugarria emoteko eta epaille izateko.

Laster ikusi zan lukia txapliegu baten antzera landa artetik urteten eta dotokea bere kapar astunaren azpian ezkutatuta agiri zan.

—Dotokeak irabazi dau! —esan eban tximinoiak, lukia sariaren billa etorri zanean.

—Ez!, ezelan be ez! Eziña da ori! —esan eban lukiak.

—Bai izan leiteken gauzea da! Erantzun eban dotokeak. Ni neure etxera eltzeko naikoa dot ankak eta oiñak kapar-barruan sartzea!

—Madarikatua zara! —esan eban lukiak goibelduta bidera joan zanean.... Aukera baten billa geratu zan jasan eban lotsariaren apentza artzeko.

Egun batzuk geroago jai aundi bat zan urrengo baserrian. Lukia ta beste pizti batzuk urreratu jakozan dotokeari eta esan eutsoen:

—Ain maltzurra zarala uste dozun ezkerro, jokatuko dogu errekarra zein lenago eldu? Eta jokoa galtzen dauanak astebeteko afariak ordaindu dagizala.

—Bai-esan eban dotokeak-biar goizean urtengo dogu betera eta ementxe!

Dotokea gabeen bere lagunak ikustera joan zan eta esan eutsen:

—Joko bat egin dot azagariagaz errekarra zein lenago eldu. Lagundu egistazuel! Irabazi egin gura dautsat eta ez ainbeste afariakaitik, geure izen onagaitik baiño.

—Zeuk esan zer egin bear dogun eta gu gertu gagoz!

—Begira! Errekarako bidean bedar-artean ezkutatu zaitez. Tximiñoiak urteteko ezaugarria emoten dauanean, azagaria ta ni arin joango gara, azagaria ni baiño aurrerago, eta noizean bein gelditu egingo da niri deitzeko eta erantzun dagiala beti urren dagoanak.

Olantxe egin eben. Oinkada batzuk emonda, azagariak geldituta esan eban:

—Dortoka adiskidea! Ba-zatoz ala ez?

—Emen nago zuri bidea erakusteko! —erantzun eban aurrean egoan dortokek.

Lukia edo azagaria, zurtz eginda geratu eta arin egiteko alegin aundiagoak egiten asi zan. Gerotxuago barrero esan eban:

—Dortoka adiskidea! Entzuten dozu oraindiño nire abotsa?

—Ia-ia ez dot entzuten —erantzun eban urren egoan dortokek. Egizu ariñago ni bidean loak artzea nai ez ba´dozu!

Azagariak oraingo onetan burua galdu eban eta arin egitea baiño besterik ez eban gogoan. Elburura eldu zanean, an aurkitu eban dortokea ontzi bete ur eskuan ebalta eta berari eskintzen:

—Edan egizu! Zure beroa kendu egizu, azagari adiskidea! Bear-bear dozu. Nire aolku bat nai ba´dozu, zure oiñak luzatu egizuz eta zure miña laburtu eta urrengoan ez zara ain barregarri geratuko.

Gorputza zentzun bagerik darabilenak, gorputza ta zentzunak galtzen dauz.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek